

Prest!



BERBETAN: **BORJA RODRIGO GIL** TRAINERUEN KLUBEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

ERREPORTAJEA: **KALAMU JORRA: AHO BIKO EZPATA** BARKUA: **PANTAILATIK ZUZENEKORA**

210-211-212-213-214-



Sustatzailea





Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak
Helbidea
Telefonoa
E-posta
Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Helene Sarasola Isazelaia - Iñigo Martinez Peña		Iritzia	4
	Ander Salvador Moya		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea Kalamu jorra: aho biko ezpata <i>Hamaika arrazoi medio joan ohi da jendea Kaliforniako kalamu plantazioetara lanera, ohikoena, diru premia. Horietako birekin egon gara PREST! aldizkarian. Euren esperientzia gazi-gozoa kontatu digute, denbora laburrean diru asko lortzearen alde onak eta txarrak.</i>			6
	Deustuko Ikastola		Eskolak	10
	Beltz-tratulariak (II): Medea ontziaren bidaia (1818)		Behin batean	12
	Zaintza eta lanak uztartzen dituzten malabaristak		Artikulua	14
b	berbetan BORJA RODRIGO GILEkin <i>Borja Rodrigo Traineruen Kluben Elkarteko (TKE) lehendakaria da. Pandemiak denboraldi atipikoa ekarri arren, baikorra da eta pozik, neurri bereziekin bada ere, arraun-zaleek udan estropadez gozatzeko aukera izango dutelako.</i>			16
	La Salle ikastetxe zaharra (1981)		Irudiak berbetan	21
	GAZTE EGUNA Egin genuen KULTURA Pantailatik zuzenekora PINTXODROMOA California gozo-denda KULTUR TXOTX Maitane Elordui eta Ane Peñagarikano Leiva		barkua bete herba	24

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hektor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Helene Sarasola, Iñigo Martinez Peña, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazio Jai Batzordea

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Jone Gartzia Gerra

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Google, lagun ala etsai?

Mugikorrera mezua heldu zaizu, lagunek oporretako argazkia zurekin partekatu dute Instagramen, argitalpenak ehunka *gustuko dut* ditu, beraz, sare sozialetan jarraitzaile berriak dituzu, baten batek iruzkinen bat edo beste idatzi du argazkian, beste batzuek meme edo gifen batekin jardetsi dute. Konturatu gabe, hamaika jakinarazpen dituzu mugikorrean eta, noski, denak begiratu dituzu. Marta Peirano kazetariak BBC Newsek egindako elkarrizketan inoiz baino ez zoriontsuagoak eta ez produktiboagoak garelako aipatzen du, menpekoak garelako, adiktoak.

Baina, orain ez hasi autoflagelatzen adikzioa ez baitu norberak sortzen. Kapitalismoaren adar handienetakoa, ezkutuenetakoa eta engainagarrienetakoa omen da arretaren ekonomia, hau da, modurik azkarrenean pertsonon arreta lortzean datza. Demagun, Netflixeko pelikula berria ikusten zaude, baina, aspertu zara eta ikusteari utzi diozu. Zu konturatu orduko, Netflixek badaki aspertua zaudela; zure datu guztiak dituela aipatzen

du Peiranok: noiz hasi zaren pelikula ikusten, noiz utzi diozun ikusteari, zein pelikula mota gustatzen zaizun, noiz joaten zaren komunera pelikula erdian... Gaur Netflixen lau ordu igaro badituzu, bihar lau orduak sei ordu izateko ahalegin guztiak egingo ditu arretaren ekonomiak.

Goazen pixkat haratago. Mugikorreko pantailako norbaitek edo zerbaitek erakartzen gaituenean, gure begi niniak handitu egiten omen dira, eta, hainbat adituren arabera, gailuetako kamarek informazio hori jasotzen dute. Googlek badaki zer eskaini zure mugikorrean. Beraz, nola jakin nor gustatzen zaigun? Googlek edo guk, nork hartzen ditu gure erabakiak? Gure izatea zein puntutaraino da guk sortutakoa eta noraino Googlek? Gure burmuinak googlelizatuta daude? Ez dut paranoikoago jarri nahi eta hemen utziko dut. Googlek dena daki zutaz. Eta zer dakizu zuk Googlek buruz? Bada, beste engainatuok bezala, ezer gutxi. Eta adikzioak aurrera darrai. Adiktoak al gara behelaino artean?



Hitz poetikoak

Hitzak erabiltzeko eta hitzekin jolasteko modu asko daude. Badiara maitatzeko, konbentzitzeko, beldurtzeko, eskatzeko edo erotitzatzeko hitzak. Askotan diskurtsoetan txertatzen dira, helburu zehatzekin. Horrela, estilo akademikoa, politikoa, zientifikoa, erlijiosoa edo filosofikoa har dezakete, testuinguruaren arabera.

Nik hitzen erabilera poetikoa gero eta gehiago estimatzen dut; hitz askeak, iradokitzaileak, biziak, hainbat esanahietara irekiak. Hitzetatik haratago bidaiatu nahi duten hitzak: bizipenak, natura, denbora eta espazioa ukitzeko hitz-koskak.

Aristotelesek sailkapenak gustoko zituen: hitzak beste hitz batzuk definitzeko erabiliak; zahartzaroan, ordea, mitoak eta poemak gero eta gehiago maite zituela esan zuen. Sokrates, zahartzaroan ere, poemak idatzen eta flauta jotzen hasi zen. Zer pentsatu ematen dit horrek: ondorio berberera heltzen dira maisu biak, borroka handirik gabe bitzita onartu eta atzera begira-

tzen dutenean. Edertasunaren bila akaso?

Hori da B.C. Han pentsalariaren desira: berrogeialdian Veneziako kanaletako ura garden bihurtu dela gogoratzen du, turismo masiboa desagertu eta handik gutxira. Kapazak izango ote gara, edertasunaren alde, orain arte bezala bidaiatzeari uko egiteko? Hauxe da bere galdera nagusia azken idatzietan.

Kontua, agian, natura poetizatzean datza. Horren adibide ederra Jon Gerediagak idatzitako poemak dira. Laster "Natura Berriak" liburua argitaratuko du: elementuen sorrera, betiereko aldaketa eta iraupenari buruzko kantuak. Askok estimatzen dut munduari begiratzeko modu hori, diskurtsoen zurrunbiloeetatik kanpo; arnas gune poetikoak dira. "Joango dira jendetzak, beteko dituzte bideak, biziko dira izarretan, asunek hartuko dituzte etxalde eta kaleak, eta gu hemen geratuko gara, lokatzetan ametsetan, zeru eta lur hauexetan." (*Urtaroak eta zeinuk* liburutik hartua).





Ander Salvador Moya

Jatorria: Ibarrekolanda

Bizitokia: Azoreak (Portugal)

Lanbidea: Biologia ikaslea



“Dudarik gabe hemengo inguru naturala da gehien gustatzen zaidana”

Biologia graduako hirugarren maila ikas-terera Azoreetara joan zen Ander Salvador iragan irailean. Itsas biologiaren zale, lakuz jositako eta itsasoz inguratutako artxipelagoan eman ditu azken hilabeteak.

Zergatik joan zinen Azoreetara?

EHUn Biologia ikasten ari naiz eta joan den urtean Erasmus mobilitate programan parte hartzeko aukera suertatu zitzaidan. Itsas biologia gustuko dudanez, eta, bide batez, naturarekin kontaktua izateko eta beste herri baten kultura eta hizkuntza ezagutzeko, helmuga hau oso interesgarria iruditu zitzaidan. Gainera, klaseko lagun batzuekin hitz egin nuen eta haiek ere interesa zuten hona etortzeko, hirurok elkarrekin etorri ginen.

Zenbat denbora daramazu bertan?

Programa urte osokoa da, beraz, hona irailaren amaieran heldu nintzen. Eskerrak lehenengo lauhilekoan uhartea ikusteko aukera izan genuen, zeren eta, egungo egoerarekin, momentuz ezin gara hiritik asko atera.

Nolakoa da bizi zaren herria?

Azoreak artxipelagoa bederatzihartez osatuta dago, baina soilik batean dago Biologia ikasteko aukera. Irla honek São Miguel du izena eta guztien artean handiena izateaz gain, garrantzitsuena da.

Uharteko hiriburuan bizi naiz, Ponta Delgadán. Hala ere, ez da oso hiri handia. Uhartea txikia izanagatik ere, ikaragarriko paisaiak ditu, dena da berdea eta lakuz beteta dago. Zenbaitetan Euskal Herriko paisaiekin alderatu daiteke.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Dudarik gabe hemengo inguru naturala, ur-jauziak, lakuak, hondartzak eta basabideak leku miragarriak dira. Izan ere, oso irla txikia denez, guztiak oso gertu daude bata bestearengandik.

Nolakoa da uharte batean bizitzea?

Orokorrean Bilbon neukan bizimodu bera daramat, baina egia da batzuetan arraroa egiten zaidala hainbeste denbora hain leku txikian ematea. Azaltzeko zaila da eta, nahiz eta Bilbon egunero ez naizen kanpora irteten, nabaritzen da lekuak zabalera oso murriztua duela.

Nolakoa da hango unibertsitatea?

Hemengo unibertsitate osoa EHUko fakultate bat bezalakoa da, oso txikia. Gainera, hemen baliabideak hangoak baino askoz murriztagoak dira zientzia-arloan.

Nola moldatzen zara portugesearekin?

Hizkuntzarekin nahiko ondo moldatzen naiz, gaztelaren oso antzekoa

baita. Hala ere, hobeto moldatzen nintzen lehenengo lauhilekoan, unibertsitatean hitz egitera “behartuta” geundelako, eta, hemen boleibolean jokatzen dudanez, taldeko partaideekin ere portugesez hitz egiten saiatzen nintzelako. B1 mailako ikastaro bat ere egin nuen eta kalean beti portugesez hitz egiten saiatzen naiz, nahiz eta batzuetan ulertzea zaila izan.

Konfinamenduak etxetik urrun harrapatu zaitu, nola igaro dituzu hilabete hauek?

Egia esan, zorte handia izan dut, hemengo egoera askoz lasaiagoa izan baita, eta gainera, etorri nintzen lagunekin pasatu dudalako konfinamendu osoa.

Zer duzu faltan?

Bizitza oso lasaia eta presiorik gabekoa da hemen, eta ez daukat presarik Bilbora bueltatzeko, baina egia da noizbehinka familia eta lagunak faltan ditudala. Hala ere, faltan dudan beste gauza bat da Euskal Herriko eta etxeko gastronomia; irrikan nago kalean tortilla pintxo bat jateko.

Laster itzultzeko asmorik?

Ikasturtea bukatzeaz dago, baina uste dut uztaila osoan geratuko naizela, behin bukatuta eta birusaren egoera lasaituz gero, beste uharteak ikusteko aukera izateko.



KALAMU JORRA: AHO BIKO EZPATA

Hamaika arrazoi medio joan ohi da jendea Kaliforniako kalamu plantazioetara lanera, ohikoena, diru premia. Hilabete gutxitan dirutza egiteko aukera ematen du negozioak, baina ez inoren kaltetan. Egunean ia 18 ordu lanean, sarri baldintza eskasetan, landetxean bertan lo egiten eta turista baimenarekin lan egiteak dakartzan arriskuekin... ez da beti negozio biribila eskuak eta lepoa jartzen dituztenentzat. Horietako birekin egon gara PREST! aldizkarian, Aitor eta Miren. Izenak asmatutakoak dira, eurenak ez erabiltzea nahiago baitute. Euren esperientzia gazi-gozoa kontatu digute, denbora laburrean diru asko lortzearen alde onak eta txarrak.

Testua: PREST!

Argazkiak: Aitor eta Miren

Aitor 2016ko irailean joan zen lehen aldiz Kaliforniara. Hiru lagunekin hegaldi merke bat hartu eta poltsikoan 1000 euro zituztela abiatu ziren. Oaklandera (Kalifornia) iritsi zirenean egin zuten lehen gauza kotxe bat erostea izan zen. Autoa ezinbestekoa omen da leku batetik bestera mugitzeko, eta jendeak iristerakoan erosi egiten du, joan baino lehen saltzeko. Halaxe egin zuen Mirenek ere 2019ko maiatzean.

Behin ibilgailua lortuta iparraldera joan ziren

lan bila: Aitor Garbervillera, Miren Arcatara. Erreferentziakzko herrixkak dira, izan ere, mendialdean bizi diren farmer edo nekazariak (kalamu lursailen jabeak) bertara joaten dira erosketak egitera. “Diru asko daukate eta kotxea ikustearekin badakizu *farmer*-ak direla”, diosku Mirenek. Jendeak supermerkatu eta gasolindegietan itxaroten die, hauek mendialdetik jaitsi eta lana noiz eskainiko zain. Aitor, adibidez, hamar egunez egon zen auto-stop egiten bere lagunekin, lana eman zien nekazari batek hartu zituen arte. Esan digunez,



lehenengo egun horiek “oso gogorak” izan ziren. Kotxean edo kalean egiten zuten lo, janari-latak jaten zituzten, dirua amaitzen ari zitzairen... Amore ematear zeudenean, orduantxe aurkitu zuten lana eman zien nekazaria. Aitor bitan egon da bere etxaldean lanean, baina lagunak lautan joandakoak ditu. Konfiantza dute laborariekin eta urtean zehar kontaktua mantentzen dute.

Oso garrantzitsua da konfiantza, baita une oro adi egotea, Mirenek azaldu digun bezala. “Ezin zara edonorekin joan, eta behin lanean hasita zerbaiti susmo txarra hartzen badiozu, hobe hanka egitea. Denbora guztian mesfidati egon behar zara.”

Lan eroso baina baldintza gogorak

Biak hainbat lursailetan egon dira lanean, eta orokorrean esperientzia onak izan dituzte baldintzei eta tratuari dagokionez. Goizeko 08:00etan lanean hasi eta 22:00ak arte gelditu gabe egoten zen Miren. Aitor are gehiago, 02:00ak arte geratzen zen sarri. Horrela kontatu digu: “Ni lanera joan nintzen, ez ondo pasatzera, eta azkenean apur bat obsesionatu nintzen, behin han egonda ahalik eta diru gehien lortu nahi nuelako. Egon nintzen lehen aldian ez nuen ezta janaria prestatzeko denborarik ere hartzen”.

Jan eta lo lursailean bertan egiten zuten, dutxa, ikusi ere ez. Aitor, adibidez, hamar egunean behin kotxez joaten zen herrira, hotel batean eguna igarotzera. Dutxatzeko, deskantsatzeko eta ondo jateko aprobeztatzen zuen egun librean. Lan gehiena eserita egiten denez, “erosoa” da zentzu horretan. “Lagunekin zaude, musika entzun eta hitz egin dezakezu bitartean, nahi duzun kalamua erre...”, kontatu digu. Baina oro ez da urre. “Lan eroso da, baina baldintzak oso gogorak dira. Hiritik urrun zaude, higienerik eta intimitaterik gabe, estaldurarik gabe... eta gauez kristoren hotza egiten du”.

Bi lan mota daude egiteko. Ohikoena, *trimming* delakoa, landareak moztea eta sal-tzeko prestatzea. Kiloka ordaintzen da, libra bakoitza (450-500 gramo) 90 eta 150 dolar artean. Bestea, kalamua bildu baino lehen egin beharreko guztia: landatu, ureztatu, adarrak moztu, zomorroak kendu, negutegietako toloak kendu eta jarri argiak noiz ematen dien kontrolatzeko... Hau orduka ordaintzen da, 15 eta 20 dolar artean. “Normalean jendeak *trimmatzea* nahiago du, eserita egiten delako eta diru gehiago irabazten delako”, diosku Mirenek. Duela urte batzuk askoz gehiago ordain-tzen zuten, baina, Mirenek azaldu

“Denbora guztian mesfidati egon behar zara”



Aitorrek lo egiteko erabiltzen zuen biltegia.



**Hi(ZKI)
BRI
DOAK**

Internet
Tua eta Zurea

Euskararen Etxea
Agortz Plaza 1, Bilbo
Melros Sembraketa
(Lakaitz/Urtebera)

www.euskararenetxe.eus
* Streaming bitur
are bestakidatza



**DO
KIN**

Urtarrak 8 • 19:30ean
ORAINMENEAN
Txakur Gorria Sormen Kolektiboa.
Bertsolaritzaren genealogia feminista.

Urtarrak 22 • 19:30ean
MUGA
Anfetsu Witia Xabier Montolaran lehen
liburua onainamututa eta
Gaztelupeko Hotsak diskotekek
organatutako agintamoa.

Azaroak 13 • 19:30ean
HABIAK
Anar iran lan homonimoan oinarritutako
ar le esklus karta kolektiboa.
Anar itatidok Habiak diaoa joko du
zuzenean.
Sareari gortirikapen bitartehingoa da

Abenduak 10 • 19:30ean
BERTSO SAIO LITERARIOA
Mari Luz Estebanek Rantuan jomilo
ditu Miran Anuziza eta Maialen Lujanbio.

takoaren arabera, Kalifornian kalamuaren negozioa legezatzeko ahaleginek produkzio kostua handitu dute eta orain askoz gutxiago irabazten dute langileek.

“Han bizi nuena oso gogorra da”

Arestian aipatu bezala, kalamu plantazioetara lanera joaten direnek diru beharrez egiten dute. Bi aldiz joana da Aitor, eta berriz premiarik izan ezean, ez du bueltatzeko asmorik. Han lortutako diruarekin hiru urte eman ditu oposizio batzuk presatzen, bestela, ez luke aukerarik izango lan egin gabe bizirauteko. Joatekotan, asmo argi batekin egiteko gomendioa eman digu. “Han bizi nuena oso gogorra da, etxera itzultzerakoan bi hilabete behar izaten nituen egokitze; ordutegiak, asteko egunak, ohiturak... dena ahaztuta nuen. Guztiz estresatuta etortzen nintzen hainbeste lan egin ostean, eta dirutzarekin soinean. Oso zaila da ez xahutzea.” Mirenek ere ez du errepikatzeko asmorik. Esperientziarekin pozik geratu zen, baina ez du uste hainbesteko dirurik lortzen denik, ez behintzat agindu zioten bezainbeste.

Dirutza mugitzen duen negozioa

Kalamu lursail gehienak legezkoak direla kontatu digute biek. Kalifornian 60ko hamarkadan hippyak heldu zirenetik, kalamua landatzeko eta kontsumitzeko ohitura handia dago, eta saltzea zein kontsumitzea legezkoa da. Mediku batek errezetatu ahal dizu cannabisa, eta dendetan eros dezakezu, baita Interneten ere. Plantazio gehienak legezkoak omen dira, ez, ordea, langileen egoera. Izan ere, turista bisarekin joan ohi dira, lan egiteko baimenik gabe.

Horregatik jendeak hiru hilabete baino ezin ditu eman lanean, Estatu Batuetan turista gisa egotea baimentzen duten denbora. Badaude trikimailuak denbora gehiago geratzeko, esaterako, herrialdetik atera eta berriz sartzea. Askok Mexikoko mugan da goen poliziaren batekin – *coyoteak*– gertzen dira eta pasaporte nahi duten datarekin zigilatzearen truke ordaintzen diete.

Horrela beste hiru hilabete luzatu dezakete egonaldia. Beste batzuek bisa apurtzea erabakitzen dute, baina aurrerantzean Estatu Batuetara itzultzeko arazoak edo be-toa izateko arriskua hartzen dute.

Miren lanean egon zenean, 2019ko udaberrian, mugak zorroztu zituzten Mexiko eta AEBen artean. “Lehen Estatu Batuetara sartzeko baino ez zeuden kontrolak, baina orain ateratzeko ere jarri dituzte”, azaldu digu. “Gauza asko galdetzen dizkizute ateratzerakoan, mugikorra ere begiratu ahal dizute”, gaineratu du.

Esperientzia gogorra bizi zuten bai Mirenek eta bai Aitorrek, baina ez dira egindakoaz damutzen. Denetarik ikusi zuten bertan: drogek akabatutako jendea, premia handiko familiak lanean seme-alaba eta guzti, tiroketak, lapurreta biolentoak, marihuana landarez jositako hektareak, “benetako hippyak”, paisaia liluragarriak, San Franziskoko “giro liberala”... baita hartz baten eraso ere. Nekez ahaztuko dute bizitakoa eta ikasitakoa, errepikatzeko asmorik ez badute ere.

“Duela urte batzuk askoz gehiago ordaintzen zuten”





“EZ GAITUZTE PRESTATU HONELAKO EGOERA BATERAKO”

Egun batetik bestera ikastetxeak itxi egin behar izan dira, Deustuko Ikastola barne.

Testua eta argazkiak:
Deustuko Ikastola



SARS-CoV-2 koronabirusari buruz komunikabideetan entzun genuen, Txinaren COVID-19 gaixotasun kutsakorrek osasun sistema gainezka jarrita zuela. Hemen, gripearen bolada gogorra igarota genuen urtarrilean. Ikasgeletan ikasle ugari falta ziren eta irakasle asko ordezkatzeko Ordeztagune sistema berria sutan zegoen, ordezkoak ikastetxe guztietara sasoiz heltzeko arazoekin.

Otsailean Txinatik kanpo hasi zen gaixotasuna hedatzen. Martxoaren 9an Arabako ikastetxe guztiak itxi ziren. Ikastolan adi geunden, neurriak ezartzen hasiak ginen, eta agindua heldu egin zen: martxoaren 13an Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeak itxi behar ziren. Egun batetik bestera, ezohiko egoera berri baten aurrean geunden.

Goizetik gauera berrasmatu behar izan zen dena: ikasleek ikaskuntza prozesuarekin jarraitu ahal izateko materialak eta edukiak iritsarazi; familiekin

komunikazioa areagotu eta bide berriak ezartzen ahalegindu; ikasle kalteberengandik arreta berezia jarri eta baliabide berriak eskura ipini; sarea sortu; Classroom, Meet, Inika, Gmail, WhatsApp eta Zoom tresnak erabiltzen ikasi; ikasleen egoeraz jabetzeko eta eragin baikorrak izateko bideak urratu...

Duda barik, egoera honek berehala aldatu, ikasi eta egokitu beharra ekarri du, eta horrek lan gainkarga, estresa, beldurra eta antsietatea ere sortu ditu. Baina, zailtasunak zailtasun, hasieratik guztion gogoia, borondatea, indarra, ausardia, elkarlana, elkarlaguntza, ahalegina... nagusitu dira.

Eguneroko aurrez aurreko jardunetik online jarduerara aldatu behar izan dugu. Classroom ezarri da LHko 4. mailatik behera, beste guztietan jada ezarrita zegoen. Azalpenak tutorialen bidez bideratu dira. Haur Hezkuntzakoek euren eguneroko korroak online egitea lortu


dute. Lehen Hezkuntzako lehen urteetan Classroom bidez lana sortu eta bidaltzeaz gain, materiala prestatu eta eskaini dute. LHko 3. eta 4. mailan lanak online egiten trebatzen joan dira, betiko koadernoetan ere lanean ibili diren bitartean. LHko 5. mailatik gora azken hiru ikasturtetik Chromebook erabiltzen dutenez, online lan egitera ohituta daude. Horrela, orain artekoa indartuz eta gehituz joan dira, eta erronkak eta tutorretza saioak ere egin dituzte.

Lan errutinak ezartzeaz gain, inportantea izan da emozioak zaintzea eta kontrolatzea. Familiei aholku eta jarraibide batzuk helarazi zaizkie, helduok oso garrantzitsuak baikara haurrentzat. Gudan dago gakoa, egoera eramangarriagoa izateko gu gara iragazkia.

Irakasleen arteko koordinazioa, familia eta ikasleekin bilerak, OOGa, Klaustroa, Guraso Elkartekoekin jarraipena, Ikuskariarekin harremana, Berritzeguneko aholkulariarekin hartu-emana... bideratzeko Googleren Meet erabili dugu gero eta arruntago.

Ez gaituzte prestatu honelako egoera baterako. Nork espero zuen halakorik? Ezta fikziozko pelikulak ikusita ere! Baina argi geratu da norainoko ahalmena eta gaitasuna adierazi daitekeen egoerak hala eskatuta. Baliabide pertsonalak puntaren puntan jarri ditugu, baina, atsedena izango da orain inportanteena: haurren emozioak bideratu ahal izateko helduoi dagokigu gure emozioez arduratzea. Denbora hartu, indarrak berreskuratu eta pilatu.

Zaindu eta laster arte!





BELTZ-TRATULARIAK (II): MEDEA ONTZIAREN BIDAIA (1818)

Aurreko atalean Deustuko Goossens jauregiko jauna eta Bizkaiko Jaurerria bera esklabotza sustatzeko enpresa baten eraketan buru belarri sartuta ikusi genituen. Asmo hura, azkenean, ez zen gauzatu. Baina Afrikan bahitutako pertsonak Ameriketara esklabo eramateko ontzietan euskaldun ugari ibili zen, batez ere XIX. mendearen hasieran. Eta tartean bazen deustuarrik.

Testua:
Hektor Ortega



Ekainaren 7an jendetza batu zen Bristolgo kaletan George Floyden hilketari salatzen. Multzoak Edward Colston (1636-1721) beltz-tratulariaren omenezko estatua eraitsi eta portura eramanean zuten, kaitik behera uretara jaurtitzeko gero, kakabelenara. Estatu Batuetako leku askotan antzera jokatu dute esklabotza eta inperialismoa sustatu zutenen oroigarriekin, baita Belgikan ere Kongo bere barruti pribatutzat jo zuten Leopoldo erregearen estatuekin.

Aurreko atalean ikusi genuen bezala, euskaldunok ere ibili ginen beltz-tratulari. Gutxitan aita-tzen dugu, baina hala gertatu zen. Eta zeregin

horretatik jende askok atera zuten etekinik. Aberatsek gehiago, jakina, baina baita pobreek ere. 1818an Bilboko bergantin bat, Medea, Afrikako kostalderantz abiatu zen. Kapitain, Ramon Barreño getxoztarra joan zen; eskifaian, besteak beste, Manuel Benvenuto eta Jose Gomez deustuarrak zeuden, kontramaisu eta marinela hurrenez hurren.

Afrikako kostaldean esklaboak erosi eta gero, Medeak Kubara jo zuten "cargado de negros". 1818ko apirillean ontzia Antillako uharterik handienean zegoen. Bahitutakoak lehorreratu eta salgai ipini zituzten. Hilaren 22an, ontziko ka-

pitainak idatziz aitortu zion Manuel Benbenutori zor zion dirua. Izan ere, Benbenuto ontziko kontramaisua zen eta postu hori betetzeagatik, kontratuan, soldata ez ezik, esklaboen salmentatik portzentajea eraman behar zuen, %1 hain zuzen. Bareñok idatzi zuenez, “como capitán que soi del bergantín la Medea de que hallándose en este puerto vendiendo la esclavitud que he conducido de la costa de Africa i no poder realizar su total producto asta tanto que se aga la última venta no puedo satisfacerle el uno por ciento que le corresponde a Manuel Venvenuto”.

Alegia, esklaboetako batzuk saldu barik zeuden eta, hortaz, denak saldu arte ezin jakin salmentaren diru kopurua eta hortik %1 zenbatekoa zen. Salmentaren parte bat eskuratzeak kontramaisu karguaren garrantziaren berri ematen digu. Normala izaten zen kapitaina ere portzentajea eramatea (%4-5, adibidez), baita gainerako ofizialek ere. Kontua da behin Kubara helduta, Bareñok Medea ontzia ere salgai paratu zuela eta, ondorioz, eskifaia despeditu zuen. Bere soldata ordaintzerakoan aitortu zion Benbenutori esklaboen salmentatik zegokion diruaren zorra.

Urtegarrenean, Dominga Neira deustuarrak auzitegietara jo zuen. Neira Benbenutoren andrea zen eta Olabeagan (Erriberan) bizi zen. Bareñok bere senarrarekin zeukan zorra kobratu nahi izan zuela eta ezin. Ez zegoen argi kapitainak ala ontzi jabeak ordaindu behar zion. Baina argi zeukan zenbatekoa. Eskabidean zehaztu zuenez, %1 hori 5.020 errealeko dirua zen. Kopuru hori erreala bada, es-

klabo guztien salmentak 502.000 erreale eman zuten.

Ez dakigu zenbat pertsona saldu zituzten Medeakoek, baina urte hartan Kubara 24.276 afrikar eraman zituzten beltz-tratulariek. 1816-1820 bitartean, 114.014 izan ziren uhartera heldutako esklaboak. Jendetza, urte hartan amaitzen zelako lege barruan esklaboak eramateko aukera. Aurrerantzean, legez kanpo egin beharko zuten, kontrabandoan, beltz-tratularitza eragozteko ardura bere buruari eman zioten ingeles gerraontzien zelatatik ihesi.

Medea ehizaki

Bareñok ezin izan zuen Medea ontzia Kuban saldu. Zer egin zuen orduan? Eskifaia berriro batu eta itsasoratu. Aurreko atalean jaso genuen XVIII. mendeko Atlantikoan itsas merkataritzak marrazten zuen triangulu ospetsua. Europa atlantikoko portuetatik ontziak Afrikara abiatu merkantziak zamatuta, behin Ginea edo Angola parean, merkantziez esklaboak erosi, haiek sotoetan gatibu jarrita Antilletara heldu eta bertan saldu eta, azkenik, Europara itzultzen ziren produktu kolonialen garraioan.

Ikusi dugun legez, Medea Afrikara joan zen, esklaboak erosi eta Kubaraino eraman zituen. Behin pertsona haiek saldua, Medea salgai paratu arren nork erosi topatu ez zuenez, Bareñok Venezuela aldera jo zuen, beharbada kakao kargamentu baten bila. 1816an ere Medea alderdi horretatik ibili zen. Kontua da giroa gero eta mikaztuago zegoela. Puerto Cabellotik hurrean zebilenean, insurjenteak (independen-tziaren aldekoak alegia) ontziak jabetu ziren.



Kalderapeño
euskal kultur gunea

www.kalderapeño.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

ZERTAZ ARI GARA ZAINZAZ ARI GARENEAN?

*Zaintza azken egunotan denon ahotan ibili den terminoa da,
baina zer dago berba potolo honen atzean?*

Testua eta grafikoa: Kiskitiñak Arangoitiko Talde Feminista

Bada, Amaia Perez Orozkok – azken urteotan beste askorekin batera terminoa definitzen eta zehazten ibili denak –, honela definitzen du zaintza: bizitza aurrera eramateko egiten ditugun ezinbesteko gauza guztien multzoa. Hau da, erosketak egitea, zer bazkalduko dugun erabakitzea, amari zelan dagoen jakiteko eta ea zerbait behar duen galdetzeko deitzea, umeez egin dituzten ariketak gainbegiratzea, Interneteko lotura ondo dabilen ziurtatzea, txiki geratu diren prakak ordezkatzeta, gaixoak zaintzea, maskarak egitea, etxeko garbiketa.... Argi dago zerrenda luze bat egin ahal dugula. Eta gizarteko zein zatik hartzen ditu bere gain lan hauek? Kontu zaharrak dira hauek baina itxialdian eta ondorengo egoeran agerian geratu da lan eta ardura hauen zati handiena emakumeen esku jarraitzen duela.

Azken asteotan Deustualdeko elkartasun sareko partaideak honetan ibili dira, hots, bizitza erdigunean jartzen. Leti Medina, gure kidea, buru belarri aritu da antolakuntzan eta auzokideak laguntzen: “Arangoitin lehenengo egunetik gabeziak ikusi eta identifikatu ditugu eta berehala boluntario batzuk agertu ginen prest behar horiek konpontzeko eta asetzeko. Hilabete hauetan, egoera larri honetan, argi ikusi da instituzio publikoen gabeziak izugarriak direla, ez direla heldu hiritarregana. Gure ustez, hurbiltasuna, hor gaudela sentitzea izan da ekimen honen arrakasta. Jendearen mobilizazioa harritu gaituen beste kontu bat izan da, baita sarean izan den parte hartzea eta baita taldeen parekidetasuna ere. Azaldu egingo naiz, orain arte zaintza emakumeek hartu dute bere gain, gehienbat emakumeen kontua zela pentsatzen baitzen.”

Letik kontu interesgarri gehiago ekarri ditu mahai gainera: “Kiskitiñak Talde feministak inkesta txiki bat egin du beste elkartasun taldeetan, jakiteko zenbat den

emakumezkoen eta gizonezkoen arteko proportzioa. Arangoitin - eta Bilbo mailan ere - emakumezkoak gehienak diren arren, Sani eta Deustun nahiko parekidea da banaketa. Honek poztu egin gaitu, nahiz eta gurean horrela ez izan, momentuz. Hemen daukagu etorkizuneko erronka, zaintza guztion ardura dela ikusaraztea. Eta hau egiteko aukera paregabea daukagu, izan ere, elkartasun taldearen ustez, sarea ezinbestekoa da eta mantendu egin behar da, gizarte-politikak betetzen ez dituen arloetara heltzen ari baikara”.

Azkenik, Kiskitiñak Talde Feministak zein auzoko sareak beti egin dugu apustu honen alde, hau da, bizitza gizartearen muina izatearen alde. Horretarako, uste dugu neurri zehatzak hartu behar direla osasungintzan, hezkuntzan eta bestelako hainbat arlotan; baina, aldaketa gerta dadin, gure inguruan eragileak izan behar gara, gure auzokideei bizitza eta zaintzak gure gizartearen oinarria eta helburua direla gogorarazi behar diegu, kontu jakina da baina ahaztu egiten baitzaigu. Beraz, badakizue, herri mugimenduoi ere fasez aldatzeko garaia heldu zaigu. Ekin diezaiogun ba!

AUZOA	EMAKUMEAK	SIZONAK	SUZTIRA	EMAKUMEZKO %
ABANDO	6	11	17	35%
ABUSU / LA PEÑA	43	20	63	68%
ALDE ZAHARRA	119	57	176	68%
AMETZOLA / IRALA	40	26	66	61%
ARANGOITI	23	7	30	77%
BEGOÑA / BOLUETA / SANTUTXU	49	34	83	59%
BILBI	33	18	51	65%
DEUSTU	56	63	119	47%
ERREKALDE	37	18	55	67%
INDAUTXU	31	33	64	48%
IRALA	37	28	65	57%
MIRIBILA / SAN ADRIAN	30	20	50	60%
OTXAR	25	19	44	57%
SANFRAN	75	35	110	68%
SANI	25	30	55	45%
JRIBARRI	111	53	164	68%
ZABALA	8	4	12	67%
ZORROTZA	33	12	45	73%
BILBOKO ELKARTASUN SAREA	781	488	1.269	62%

ITURRIA: BILBOKO ELKARTASUN SAREA



DEFENDATU DUGU... ETA AURRERA GOAZ!

Deustuko Gazte Lokala 1991eko ekainean okupatu zenetik zenbatu ezinak dira bertan antolatu diren ekintzak, sortu diren planteamenduak, espazioa ezagutu duten gazteak... eta ezagutuko dutenak!

Testua eta irudiak: Deustuko Gazte Lokala

Duela 29 urte, Gorordoren garaitik negoziatuta zegoen gazte espazio baten zesioa, baina Ortuondo alkateak hitza jan eta bertan behera utzi zuen. Orduan, gazte talde batek merkatu zaharra okupatu zuen, eta horrela gaur arte bizirik dirauen Deustuko Gazte Lokala jaio zen.

90ko hamarkadan zehar egunero bizia zuen espazio bezala oroitzen da, garaiko gazteria batzen zuena eta beti jendez eta ekintzaz beterik zegoena. Garai hartan gazte askoz gehiago zegoen kopuru aldetik, eta gazte lokalak aisialdi alternatibo eta eskuragarri bat eskaintzen zuen.

2008. urtean Deustuko Gazte Lokalaren parean zegoen Txoridenda okupatu eta Deustuko Gazte Asanblada Bilboko udalarekin akordio batera iritsi zen, zeinetan bi eraikinen kudeaketa gazteen gain egotea onartzen zuen.

Urteak joan eta etorri, Gazte Lokalaren jardunak aurrera jarraitu zuen, eta denok gogoratzen dugu nola Bilboko Udalak gazteekin zuen elkarrizketa apurto eta 2008ko akordioa deuseztatu zuen, Deustuko Gazte Lokalaren hustea aginduz 2017ko irailean.

Kontzertuek sortutako zaratak erabili zituzten “auzokideren bat” gure aurka zegoela adierazteko, baina berehala ikusi zen inguruko auzokideen babesa genuela.

Momentu horretan *Defenda Dezagun!* kanpaina martxan jarri genuen, eta ezin ukatu defendatzea lortu genuela. Kamisetak, prentsaurrekoak, kartelak, pegatak, pankartak, sinadurak, argazkiak, elkarrizketak, kontzertuak, ekimenak... eta bizirik gaude! Bilboko udalak 2016-2017 ikasturtean martxan jarri zuen desalojoen dinamika gelditzea lortu genuen, Etxarri Gaztetxea eta Izarbeltz Ateneoa hutsarazi ostean.

Hiru urte geroago, irudia berriro dugu, desalojoari aurre egitetik haratago bizirik gaudelako eta martxan jarraitzen dugulako. Beste mundu batekin amesten dugu: gazteriaren espazio erreferentzial eta topalekua izaten jarraituz, autogestioa oinarri hartuta Deustu eraldatzen jarraitzeko asmoa daukagu.

29 urte dira Deustuko Gazte Lokala okupatu zenetik, eta gutxienez beste horrenbeste iraungo ditugula argi daukagu!



b berbetan

BORJA RODRIGO GILekin

Traineruen Kluben Elkarteko (TKE) lehendakaria

“Arraunlarien klubetan orain

Borja Rodrigo Gil Traineruen Kluben Elkarteko (TKE) lehendakaria da. Pandemiak denboraldi atipikoa ekarri arren, baikorra da eta pozik, neurri bereziekin bada ere, arraun-zaleek udan estropadez gozatzeko aukera izango dutelako.



ilusioa eta indarra da nagusi”

Nola baloratzen duzu orain arte egindako lana?

Laugarren urtea dut TKEko lehendakaritzan eta positiboki baloratzen dut. Pozik nago elkartearen bilakaerarekin eta kudeatzen dituen bi ligekin: Eusko label [gizonezkoena] eta Euskotren [emakumezkoena].

Zalantzarik gabe, gaur egungo egoera berria da zuretzat ere. Nola bizi izaten ari zara?

Zorionez, pandemiaren datuak ikusita, baikorra izateko arrazoiak ditugu. Izan ere, gure lehia udan izaten da eta garaiz helduko gara. Hala ere, zuhur jokatu nahi dugu eta beharrezkoak diren neurri prebentiboak hartzen ari gara. Ezin gara erlaxatu.

Nola eragin dio pandemiak arraun munduari?

Jendarte osoari bezala, guztiz eragin digu eta guztioi, gainera: kirolariei, zuzendaritzei, babesleei eta kudeaketa taldeei. Gure jarduera oso era bortitzean kolpatua izan da eta izaten ari da. Ez geunden prest horrelako esperientzia baterako.

Nola aurreikusten duzu denboraldia?

Kirolaren ikuspuntutik urtero ditugun zalantza berekin, hau da, tripulazio bakoitzak emango duen kirol-maila ikusteko irrikaz. Aurten, gainera, ez denez denboraldi-aurrerik egon ezta estropadarik ere, ez dago jakiterik zer nolako maila izango duten traineruek. Kudeaketa arloan, oso denboraldi atipikoa izango da: prebentzioan neurriak hartu beharko ditugu eta estropadetan jende-pilaketak saihestu beharko ditugu.

“Ez denez denboraldi-aurrerik egon, ez dago jakiterik zer nolako maila izango duten traineruek”

▷ ▷ SAKONEAN

“Zuzendaritza postuetan gizonetzkoak egotearen joera arrastaka eramaten dugu”

Noiz hasi zinen arraun munduan?

Deustun 2006an eta 2007an arraunlaria izan nintzen. Gero, taldeari lotuta jarraitu nuen zuzendaritza taldean. Sei urtez Bizkaiko Arraun Federazioko lehendakaria izan eta gero, 2017an TKEko lehendakaria izateko proposamena onartu nuen.

Hemendik aurrerako erronkarik?

TKEren alde lanean jarraitzea eta udan bi lehiak arazorik gabe antolatzea. Irailetik aurrera etorriko direnak prestatzea ere beste erronka bat izango da.

Zergatik zarete denak gizonak zuzendaritzan?

Zuzendaritza postuetan gizonetzkoak egotearen joera arrastaka eramaten dugu, baina emakumeek gero eta oihartzun handiagoa dute arraun munduan.

Arraunaren jarraitzaileei mezuren bat bidali nahi diezu?

Aurreko hilabeteetan izandako interesa, pazientzia eta gertutasuna eskertu nahi dizkiet eta TKEren eskutik uda beteko estropadez disfruta dezatela opa diet.



Estropadak egiteko zer neurri aurreikusi dituzue?

TKEk egin duen Covid-19 protokoloan agertzen dira neurri guztiak. Elkarteko medikuak taldeen medikuekin batera egindakoa da eta bertan gobernu autonomikoen Osasun Sailen irizpideak, baita Espainiako Osasun Ministerioaren neurriak ere kontuan hartzen dira. Neurriek gure kirolarien aktibitateei eragiten die, baita gure ekitaldien antolaketari.

Neurriak adostea kostatu zaizue?

Zalantzarik gabe esango nuke lan handiko hilabeteak izan direla. Bazkideek parte hartze aktiboa izan dute eta adostasunaren bitartez hartu ditugun erabakiek aurtengo udan lehiaketa egotea bermatu dute.

Zer giro dago klubean?

Oraintxe bertan ilusioa da nagusi. Ilusioa

eta gogoia lehiaketaren hasieratik, batez ere, bizi izandako egoerak tentsio eta neke handia utzi dituelako.

Zer gertatuko da jarraitzaileekin?

Jarraitzaileei jaso ahal duten oparirik onena emango diegu: uda beteko estropada, ehuneko ehunean disfrutatu ahal izango dituzten 18 jardunaldiak.

Krisiek aldaketarako ere aukera ematen di dute. Arraunean aldaketa esanguratsuak egongo direla uste duzue?

Osasun krisi honek ekarriko digun agertokiak kezkatzen gaitu, batez ere pairatuko ditugun ondorio ekonomikoek babesleei eragingo dielako.

Nola eragiten dio ekonomikoki honek guztiak arraun munduari?

2020. urtea nola amaitzen den ikusiko dugu, eta enpresek 2021. urteari nola ekingo dioten jakiten dugunean, orduan gure aktibitatearen gaineko balizko kolpea hobeto ulertuko dugu.

Arrauna “saltzea” zaila al da? Asko kostatzen zaizue babesleak lortzea, telebistan agertzea... ?

Arraunak, nahiz eta interes handiko kirola izan, nahiz eta kulturalki oso errotuta egon, ez du kirolgune bat, hau da, ez du kirol zelai batek duen sarrerarik. Horrek asko zailtzen du gure kudeaketa lana, batez ere, baliabideak gureganatzeko orduan. Telebista plataforma zoragarria da gure produktua ezagutarazteko eta hori baliatu behar dugu. Gure babesleei eta gure klubei eskaini ahal diegun erakusleihorik onena da. Ezin dugu ahaztu estropada bakoitzean udalerrri bakoitzean biltzen den jendetza ere.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Benetan uste dut hilabete hauetan bizi izandakoak indartsuago egingo gaituela. Gure proiektua gehiago baloratuko dugu eta ilusio handiagoz biziko dugu, gauzak hobe egiteko lanean jarraitzeko helburuz.

Horrek gure indarguneak eta arraunaren baloreak ezagutzera ematea ekarriko du.

Zer ematen dio TKEk arraun munduari?

Arraunaren lehenengo maila izateak traineruen lehiari beharrezkoa den egonkortasuna ematen dio. Horretaz gain, arrauna modernizatzen duten berritasun teknikoak sartzen ditu eta kirol honekiko interesa gero eta handiagoa izatea lortzen du.

Zenbat taldek parte hartzen dute elkarteetan?

12 dira TKE osatzen duten bazkideak eta bi liga antolatzen ditu, Euskolabel liga gizonetzkoentzat eta Euskotren liga emakumezkoentzat.

Zein da emakumezkoen arraunaren egoera?

10 urte baino gehiago daramatzagu Euskotren liga antolatzen eta zalantzarik gabe emakumezkoen arraunarentzat agertokirik onena da. Beti bultzatzen, indartzen eta hobetzen jarraitzearen alde egin dugu eta horrek arraun munduan berdintasunaren aldeko borrokan aurrera egitea bermatu digu. Momentu honetan ez dugu ikusten bi ligarik gabeko TKERik. Lan handia dugu aurretik, baina oso pozik gaude egindako lanarekin emakumezkoen arrauna ikusarazteko.

“Jarraitzaileei jaso ahal duten oparirik onena emango diegu”



HIRIGINTZA

Skateparkea eraitsi dute

Botikazar Erriberako skateparkea eraitsi dute, bere ordez Zorrotzaurre Planeko sei etxebizitza bloke erai- kitzeko. 33 urte zituen parkeak eta erabiltzaile zein herritarren haserre- ra eragin du eraisteak. Amorrua adieraz- teko ekainaren 21ean manifestazioa egin zuten Etxebarria parkeko ska- teparketik Olabeagakora, Udaletik igarota. "Skatepark duin bat" alda- rrikatu zuten skatearen nazioarteko egunean. Botikazarreko biribilgunea ere eraitsiko dute etxebizitzak erai- kitzeko, eta lanak aurrera eramateko Morgan kaleko espaloia, galtzada eta aparkalekua okupatuko dituzte uztai- laren 8ra bitartean. Halaber, Morga kalea zeharkatzen duen oinezkoen pasabidea ere kenduko dute.



FEMINISMOA

Emakumeen testigantza bila

Itxialdian emakumeek bizi izandako egoerak salatzen kanpaina jarri du martxan Pare Deustuko Gazte Talde Feministak. Konfinamendua bitar- tean genero ardatzarekin zerikusia izan duten egoeren bozgorailu izan nahi du. Taldekokideek adierazi dute COVID 19aren pandemiak sistema- ren interes kapitalista, kolonial eta patriarkalak inoiz baino ageriago utzi dituela, eta egoera zaurgarrienean daudenak direla ondori latzenak paira- ratzen dituztenak, tartean emaku- meak. Horren aurrean, erantzun kolektiboa antolatzen eta sistemaren indarkeria salatzen deia zabaldu dute. Testigantzak sare sozialen bitar- tez, e-mail bitartez edo Gazte Loka- leko postontziaren bitartez helarazi daitezke, eta anonimoak izango dira emakumeek hala nahi badute.



LGTBI+

Berdindu!-k bulegoa ireki du Deustun

Sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaien inguruko informazioa eta arreta ematen duen zerbitzu publikoa da. Batez ere LGBTBI+ pertsonen eta haien inguruko laguntzen die, baina, hezkuntza-komunitatearekin, eragile sozial eta profesionalekin, komunikabideekin eta, oro har, gizarte osoarekin ere egiten dute lan, "LGTBIfobia ezabatzen eta LGBTBI pertsonen eskubi- deak eta askatasunak erabat gauzatzeko egon daitezkeen oztopoak kentzeko". Orain aurrez aurreko zerbitzua Deustun emango dute, Ramon y Cajal kaleko 2. zenbakian (behea). Telefonoz, posta elektronikoz edo bideo-dei bitartez ere ematen dute laguntza.



San Inazioko kiroldegia irekita

Ekainaren 15ean ireki zuten San Inazioko kiroldegiko instalazio batzuk ireki zituzten. Igerilekua, solarium eremua, kanpoko padel eta tenis zelaiak eta pilotalekua erabili daitezke geroztik, %50eko edukierarekin. Guneak bereizi dituzte erabiltzaileen arteko segurtasun tartea bermatzeko. Instalaziok erabiltzeko alde aurretik hitzordua eskatu behar da Bilbao Kirolak webgunean. Aldagelak eta dutxak zabalik dauden arren, ez erabiltzeko gomendatu dute. Artxandako kiroldegia izan zen ateak irekitzen lehena, Zorrotza eta San Inaziokoak izan ziren hurrengoak, eta pixkanaka denak irekitzeko asmoa du Udalak. Deustukoan, baina, kirola egiteko gehiago itxaron beharko da, igerilekuan lanak egingo dituztelako. Bestalde, Udala azokek udako ordutegia dute ekainaren 15az geroztik. Ondorioz, Deustuko eta San Inazioko merkatuak zabalik egongo dira astelehenetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara, eta San Inaziokoak ostiraletan 17:00etatik 19:30era ere irekiko du.



Urtea: 1981

Txema Luzuriaga

La Salle ikastetxe zaharra

La Salle ikastetxea antzina Madariaga bidean zegoen, San Felisimo elizaren ostean. “Los Hermanos” izenez ezaguna zen. XIX. mendean koleraren aurkako hospitale izan zen, baita Ibarra familiaren jauregi etxea ere. Argazkian ageri den eliza 1995ean izan zen eraitsia.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

△ 7 △ L △
TATTOO STUDIO

Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303


Optica
Avenida
Agirre Lehendakaria, 147 Tlfnoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^o del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Yoki Berrri
Taberna
Good vibes!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Eintoreria
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak... garbitzen ditugu

artez
euskaraz zerbiztua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
APPLE App Store
BFA OIB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskalategia
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elekttrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Zer deritzozu egoera honetan hauteskundeak deitzeari?

Nerea Olaziregi



**Unai Benito
Tafalla**

Dena da gezurra niretzako, nik ez dut parte hartuko.



**Montse Gonzalez
Galdakao**

Ez naiz politikazalea baina uste dut une honetan beharrezkoa dela politikari guztiak elkartzea eta jendea laguntzea, alderdikeriak alde batera utzita.



**Nerea Idigoras
Deustu**

Berria entzun nuenean pentsatu nuen lehenengo gauza izan zen ez nuela bozkatuko eta gurditik jaitsiko nintzela.



**Luis Mendiola
Erribera**

Ondo deritzot. Beharrezkoa da hau hobeto antolatzea, eta jarrera eta ideiak batzea zerbait positiboa egiteko.



**Aitor Urkijo
Dorremadariaga**

Anarkista naiz eta sistema hau suntsitzea nahi dut. Berdin dit hauteskundeak egotea ala ez.



**Txelu Gil
Erribera**

Ados nago, hauteskundeen txanda heldu da. Uste dut Euskadi mailan gobernu potentea dugula.



harkua bete herna

>> GAZTE EGUNA

EGIN GENUEN

Gazte eguna egin edo ez egin, gazte eguna horrela edo hala egin... izan genituen eztabaidak, bai. Gauza bat, baina argi, zegoen: kaleak hartzeko ordua zela, kaleak hartu eta astintzekoa.

Testua eta irudiak: Deustuko Gazte Eguna

Konfinatuta egotea gogorra izan da, egungo egoera gogorra da. Konfinatu gaituztenean, birusa kontajiatzeko gai diren pertsonak etxean sartzearekin batera, etxean sartu dituzte gure proiektu, anbizio eta amets guztiak.

Gazteon arazok hor jarraitzen dute, hor jarraitzen du prekaritateak, matxismoak, etxea ordaindu ezinak eta kaleen merkantilizazio eta pribatizazioak... askoren kalte. Hor jarraitzen dute, era berean, apustu etxeek, enpresa handien irabaziak, polizia-aren presentzia etengabeak... gutxi batzuen mesedetan. Askoren kalte, gutxiren mesedetan. Honen aurrean, aspaldi daramagu antolatzen, eta

orain, antolakuntzaz kaleak hartzeko ordua da.

Horregatik antolatu genuen Gazte Eguna. Ekainaren 13ko goizean Artxandako tontorrera igo ginen, kaleetan murgildu aurretik beharrezkoa baita bista altxatu eta hartzera zoazen hori goitik begiratzea, hausnartzea eta ekitea. Jaitsi ginen eta hartu genuen plaza, Dj, barra, maskara eta segurtasun tarte eta guzti. Eta plaza herriarentzat hartu genuen, lehenago sarritan egin bezala. Egitarauari bukaera emateko, dilistak jan genituen denok batera, zirkuluan, asanbladan. Ez dago esan beharrik, egunak beti ez direla egitarauarekin batera bukatzen



eta bazkalosteko kafearen ondoren, baflearekin batera joan ginen Deustuko kaleetatik barrena.



Bukatzeko, agian gehiegi eskatzea dela pentsatuko duzue batzuek, baina, bihotzez espero dugu gure esperientzia xumeak balio dezala Euskal Herriko edozein txokotan antolakuntza eta borrokarako grina sustatzeko. Azken finean, Gazte Egun bat egiteko antolatu baikara, Gazte Egun bat egin dugu kaleak hartzeko eta kaleak hartu ditugu mundu hau aldatzeko.



Botaba unibertsoa

Labayru Fundazioak bultzatua, Euskal Esamoldeen Unibertsoa eratu asmo du Botaba Erronkak. Kalean eta lagunartean erabiltzen diren lagunarteko esapideen erabilera modu dibertigarri eta dinamikoan sustatzeko dinamika da. Horretarako, astero erronkak egingo dituzte @botabaunibertsoa Instagram kontuan eta hilean behin zozketak antolatuko dituzte parte-hartzaileen artean. Gainera, esparru desberdinetako euskal pertsonaia erreferenteen kolaborazioa izango dute dinamika zabaltzen laguntzeko.



Akuilari aplikazioa



Hizkuntza eskubideen urraketak salatzeako aplikazioa da Akuilari. Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin modu azkar eta eraginkorrean harremanetan jartzeko tresna da, mugikorrean deskargatu daitekeena. Kexak jartzeko balio du, euskara erabiltzeagatik kaltetuak izateagatik, adibidez, baina baita hizkuntza eskubideak errespetatzen dituzten erakundeen jarra txalotzeko ere. Aplikazioaz gain, Behatokiak badu antzeko beste tresna bat: euskararen telefonoa. Honek aukera ematen du Internetez –euskararentelefonoa.com– edo telefonoz –948 146 172– kexa eta zorian mezuak igorri, eta hizkuntza-eskubideei buruzko kontsultak egiteko.



PANTAILATIK ZUZENEKORA

Itxialdiak ezustean harrapatu gintuen guzti-guztiok, eta, jakina, kultur aretoak ez ziren salbuespena izan. Jende aurreko jarduera eteten lehenetarikoak izan ziren, eta pixkanaka 'normaltasun berri' honetan lekua egiten ari badira ere, motela izango da lehendik ahulduta zegoen sektorearen osatzea. Deustuko kultur aretoetan nola eragin duen ikusteko, Satellite T tabernara, La Fundicion aretora eta Pabiloi 6ra jo dugu.

Testua: Jone Gartzia



Matxoaren 15ean etxean geratzeko agindu zigutenean inor gutxik hartu zion benetako tamaina zetorkigunari. Bi aste kontua izango zela pentsatu genuen gehienok, eta erretxinduta egin genien kasu sinesgaitzak egiten zitzaizkigun aginduei.

Kultur aretoetan gauza bera gertatu zen. "Zartakoa ustekabekoa izan zen, eta kontratuak suspenditzen hasi ziren arte ez genien neurria hartu egoerari", aitortu digu La Fundicion aretoko Lukek. Pabiloi 6ko Ramon Bareak sentsazio bera adierazi digu: "Hasieran maiatzean martxan jarri ahalko ginela pentsatu genuen, baina pixkana errealitateak gure lekuan jarri gaitu eta azkenan ekainaren 25ean bueltatzeko apustua egin dugu".

Ez da erraza izango, baina Deustuko bi antzokiek argi dute jendaurrera itzultzea funtsezkoa dela. Edukiera mugak eta segurtasun neurri zorrotzak ezarri beharko dituzten arren, prest daude jauzia egiteko. "Jarduera berreskuratu behar da, jendea animatzeko eta beldurra kentzen laguntzeko", diosku Lukek. "Prest gaude ekonomikoki errentagarriak ez diren ekintzak egiteko, sozialki eta artistikoki onuragarriak izango direlako", Ramon Bareak.

Aldiz, Satellite T tabernako Alfonsok ez du emanaldien egitaraua berehala martxan jartzeko asmorik. Kontzertuak, antzerkiak eta askotariko ikuskizunak egiten dituzte Botikazar Erriberako lokalean, baina ezarri

beharreko neurrien inguruko zehaztasunen faltan, momentuz itxarotea erabaki dute. “Nahiago dugu zuhurrak izan ausartak baino gehiago, horregatik baliabide administratibo gehiago ditzuten aretoetan kontzertuak ematen hasi arte, guk ez dugu emanaldirik antolatuko”, Alfonsoren hitzak.

“Zuzeneko artea egin nahi dugu”

Pabiloi 6 izan zen gure inguruan irekiera iragarri zuen lehen antzokia. Gerora, Arriagak aurrea hartu zion datarekin, baina apustua egiten lehenak auzokideak izan ziren. Ekainaren 25ean hasiko dira *Hoy, última función* antzezlanarekin. Ramon Barea aktoreak berak esan digu antzezle gutxiko obrak aukeratu dituztela hasteko, osasun baldintzak hobetsita. Antzokiaren edukiera erdira mugatu dute eta terraza handi bat prestatu dute itxaroteko. Maskarak, gelak eta distantziak ez ditugu aise gainerik kenduko, noski. Gainera, aurrerantzean sarrerak Interneten eskatu beharko dira.

La Fundicionen ere ari dira hainbeste desiratutako itzulera planifikatzen. Astebete geroago ekingo diote aurrez aurreko jarduerari, uztailaren 1ean, alegia, eta funtzioak zuzenean zein *streaming* bitartez emango dituzte. “Aldi baterako neurria da *streaming-a*, hainbat arrazoiengatik bertaratu ezingo den publikoari zuzenduta, baina guk zuzeneko artea egin nahi dugu, publikoarekin harremana duena eta komunitatea eraikitzen duena”, esan digu Lukek.

Horregatik, ez du uste azken hilabeteetan indartu den joera, kultura etxetik eta pantaila bidez kontsumitzearena, luzerako geratuko denik. “Ez

da berdina bidaia bat egitea edo leku horren inguruko dokumental bat ikustea, berdin gertatzen da artearekin”. Iritzi berekoa da Barea. “Nahiko isolamendu eta pantaila izan dugu, kontuz ibili behar gara horrekin. Ezin dugu zuzeneko artea galdu, besteekin harremana eten.”

Suspenditu ez, atzeratu

Azken hilabeteotan egin izan ez dituzten saioak birkokatzeko apustua egin dute La Fundicion aretoan, ez dute ezer bertan behera utzi nahi izan. “Guzti honen atzean pertsonak daude, horregatik ez ditugu konpainiak suspenditu, baizik eta 2020an zehar birkokatu, aurten aurreikusitako diru-sarrerak izan ditzaten”. La Fundicion arte eszeniko garaikidea egiten duten talde eta egitura oso hauskorrek osatzen dute, eta proiektua salbatzea da helburua.

Osasun neurriak errespetatu beharko dituzte horretarako, eta ari dira emanaldi batzuk La Fundicion ez beste lekuren batean antolatzea pentsatzen, distantziak hobeto bermatu ahal izateko. Nolanahi ere, orain arte ez dira geldirik egon, eta itxialdiaren arintzearekin batera, bilerak egiteko eta entseatzeko atondu dute espazioa.

Pabiloi 6n ere denboraldi honetan egin nahi dituzte ahalik eta ekitaldi gehienak. Ilusio handiz, gainera; izan ere, martxoan eta apirilean programatuta zituzten bi obrak Gazte Konpainiarenak ziren, eta irailetik aurrera egoitza propioa izango dutela aurreratu digu Ramon Barea. “Espero dugu era honetan hiru hilabete hauetako geldialdiak eragindako defizita murriztea, nahiz eta gu ez garen geldirik egon”, diosku itxaronpentsu.



HOY, ÚLTIMA FUNCIÓN

ekainaren 25etik
uztailaren 5era

Ramón Barea eta Itziar Lazkano
www.pabellón6.org



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Deustuko tomatetxoak

Konfinamenduaren arintzearekin batera pixkanaka Deustuko kaleak berreskuratzen hasi gara. Aitzakia horrekin ekaineko aldizkarian Pintxodromoa eztitu nahi izan dugu eta Madariaga etorbideko California gozotegira jo dugu gomendio eske.

Kontu batzuk

Laster 70 urte beteko ditu California gozo-dendak Madariaga etorbideko 9. zenbakian. Eduardo Perezek 1972an hartu zuen dendaren gidaritza eta berak eman digu bertako sekretu gozoenen berri. Gurinopilak, Karolinak, arroz pastelak, txokolatedun palmerak, San Jose Txirlorak, trufak, etxeko marmeladak, hostopilak, berrogei mota baino gehiagoko pasteltxoak... Denetarik aurkitu daiteke Californiako atea gurutzatu eta erakusmahaiaren bestaldean. Gainera, badira 40 urte Pazkoako monak egiten dituztela, txokolatzeko figura bitxiak. Bizkaian horren mona landuak egiten dituzten gozotegi bakarra direla aitortu digu Eduardok.



CALIFORNIA GOZO-DENDA

Madariaga etorbidea 9

Deustu

944 75 13 57

08:00 – 14:00 eta 16:30 – 20:30



Deustuko tomatetxoak

Tomate itxurako bi bonboi dira, trufa desberdinez beteak eta bata bestea-rekin elkartuak. Kolore desberdinak dituzte tomateok, trufa desberdinen araberakoak. Horren bonboi txikiak izanik ez da erraza hauen elaborazioa: 7 bonboi kilo egiteko lau ordu

behar izaten dituzte. 2000. urtean hasi ziren Deustuko Tomatetxoak egiten. Izan ere, Eduardori asko gustatzen zaio ortua, bereziki tomateak. Horrela otu zitzaion Deustun horren ezaguna den barazki honen itxurarekin gozokiak egitea.



Teilak

Bost motako teilak egiten dituzte California gozo-dendan: lauak, txokolatetxoak, txokolatetan bustiak, gurinez kiribilduak... Lehendabizi gurina eta zuringoak orez estaltzen dituzte. Jarraian azukrea eta irina gehitzen dizkiote eta amaitzeko almendrak edo txokolatea gehitu.

Osagaiak:

- Azukrea
- Zuringoak
- Gurina
- Irina



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

EKAINA PREST! 214



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



MAITANE ELORDUI

Liburuzaina

LIBURU SENDAGARRIAK

Birusak gorabehera, hasi dugu uda, temperatura freskoarekin hasi ere (Euskal Herri tropikalaren berririk ez oraingo honetan); eta zer modu hobea gogorik aurretiazko hitzorduz, hondartza eta igerileku jendetsuz betetako ezohiko udari aurre egiteko, kulturaren birusarekin kutsatua izatea baino. Jairik eta jendarterik ez eta zer egin? Liburuak maite ditugun erromantikook errez erantzuten diogu galderari: naturaz gozatu, bidaiatu (mentalki baldin bada ere), eta kultura bizi.

Gaurko honetan, berriz, liburuak daukaten zeregin hezitzailea eta lasaigarria ere gogora ekarri nahi ditut, eta, batez ere, gure etxeko txikientzat zelako garrantzia duten aldarrikatu. Horretarako, pandemia honetan, aitite-amama, senide edo lagunen bat galdu duten ume edo senideei laguntzeko liburu batzuk gomendatu nahi ditut:

- Ttartalok argitaratutako bi liburu: Jelleke Rijken idazle eta Mack van Gageldonk ilustratzaile nederlandarren *Agur, aitona* (2018) liburua; eta Annick Masson ilustratzailearen *Paulatxo* (2019).
- Kalandraka argitaletxearen *Ez da erraza, katagorri!* (2017) Elisa Ramon katalanarena.
- *Nora joan da aitona?* (2014) Alaine Agirre idazle bermeotarra eta Maite Gurrutxaga ilustratzailearena, Elkarren eskutik.
- *Nire lagun ikusezina* (2016), Salvatella argitaletxeak Emozio Bilduma liburu sortaren barruan argitaratutakoa.

Liburu hauek guztiak etxeko txikientzat lagungarriak izango dira heriotza ulertu eta modu lasaiagoan pairatzeko.

ZENBAT BERTSO EDER ZOR DIZKIOGUN ELKARRI

Doimua: Goizean altxatu eta



ANE PEÑAGARIKANO LEIVA

Elorri bertso-eskolako kidea

Hiru urteko pausuen ta errenkaden oinarri korrontearen norantzan errekarri- errekarri Gipuzkoatik iritsiz zenbait pixu errukarri esperientzian gosez ta esperantzaren egarri bertsoeskolan irakasle sartu nintzenezan larri idatzien erritmoan letra txarrarekin sarri (bis) eta zenbat bertso eder zor dizkiogun elkarr

Baina Deustu agortzen da eta atzerantza bista eman izan baligute zer zetorrenaren pista esker onez amaitzeko ta oroitzeko aldizka herriko ameslariak ze jefa ta ze artista goxoki hartu gintuzten "Zelan?"-zka eta irrizka Deustuk magala bero du Ta bertute bat dizdizka (bis) etxe bat sortzen da, ta ez bizileku bat erdizka

merezi
duzun
herria

m

MADDALEN
IRIARTE
OKINENA

egiteko
prest.

maddalen

ZURE LEHENDAKARIA

ehbildu

Bilbon
euskaraz

B

Bilbao



www.bilbaoeuskaraz.eus

Indartu euskarazko
tokiko hedabideak

Izan herriko
aldizkariaren parte

Deustuko informazioa hilerio
paperean eta e-postan



Babestu PREST! aldizkaria
25 euro urtean



prestharpide@gmail.com

prest!